

## **ZUMARRAGA / Joan Mari Irigoien 'Bestea da mundua' liburua landuko du irakurle taldeak apirilean**

Pasa den martxoaren 3an Bernardo Atxagaren "Zazpi etxe Frantzian" liburua landu ostean, Bernardo Atxagak berak ere saioan parte hartu zuelarik, apirilean egingo du hurrengo bilkura Zumarraga-Urretxuko irakurle taldeak. Apirilaren 21ean izango da hurrengo saioa, eta bertan Joan Mari Irigoien 'Bestea da mundua' liburuaren gainean solastatuko dira. "Liburu hau, idazle altzatarra gorpuzten ari den 'Orbetarrak' trilogiako lehena da. Dagoeneko argitaratu du trilogia horretako bigarren alea ere, 'Haragiaren gauak eta egunak' izenekoa, baina irakurle taldeko solasaldian lehenengo liburua izango dute ardatz", dio Gorka Azkaratek, saioen dinamizatzailea.

"Joan Mari Irigoien hainbat liburu argitaratu dituen idazle emankorra da, eta bere liburu asko euskarazko obra oso garrantzitsu bilakatu dira denboraren joanarekin, hala nola, 'Babilonia' edo 'Lur bat haratago'. Idazketara buru-belarri emana dagoen sortzailea da, Irigoien. Irakurle taldetik aditzera eman dutenez, idazleak berak ere parte hartuko du apirileko saioan, martxoan gertatu bezala", aurreratzen du Azkaratek.

Ohi bezala, irakurle taldearen solasaldia irekia da, nahi duen edozeinek hartu dezake parte. "Gomendatzen den gauza bakarra, solasaldi egunerako liburua irakurtzea da, kasu bakoitzean hilabete horretako liburua izan ohi delako ardatza. 'Bestea da mundua' liburua irakurri eta solasaldian parte hartzeko asmoa duenak, Zumarragako liburutegian izango du liburua maileguan hartzeko aukera, solasaldi horretarako propio hainbat ale eskuratu dituelako liburutegiak".